



Bertsozale Elkartearen Berripapera

ESPAÑA	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.eus

2017ko IRAILA - 186. zenbakia

Bazkideentzako hainbat onura Bertsolari Txapelketa Nagusian

Hilaren 23an hasiko da Baigorri Bertsolari Txapelketa Nagusiaren edizio berria. Hiru hilabetez 14 saio izango ditu txapelketak eta abenduaren 17an amaituko da Barakaldon.

Astebete baino ez da falta 2017ko Bertsolari Txapelketa Nagusia hasteko. Datorren txapelketa honen eta egiten ditugun gainerako ekimen guztien ezinbesteko sostengua zarete bazkideok. Horregatik, Txapelketa Nagusi honetan ere esker ona agertu nahi dizuegu, txapelketan zehar hainbat onura eskainiz.

Txapelketako abonamendua soilik bazkideok erosteko aukera izango duzue. Honekin saio guztietan sartzeko aukera izango da, finalean izan ezik. Kontutan izan abonamendu kopuru mugatua jarriko dela eskuragarri.

Bestalde, finalurreko eta finaleko sarrerak erosteko lehentasuna izango duzue; urriaren 2ra arte bazkideok eskuratu ahal izango dituzue soilik finalurreko eta finaleko sarrerak. Hori bai, gogoan izan, sarrera mota hau internetez edo saioetan eros daitekeela bakarrik. Data horretatik aurrera, bazkide ez direnek ere izango dute finalurrekoetako eta finaleko sarrerak erosteko aukera.

Gainera, eta ohi bezala, bazkideok prezio berezia izango duzue saio guztietako sarreretan.

Saioez harago

Txapelketarekin batera hainbat egiteko jarriko ditugu martxan eta horien xehetasun guztiak etxean jasoko duzuen txapelketako aldizkarian, zein www.bertsozale.eus webgunean aurkituko dituzue.

Besteak beste, azterketa soziologikoa egingo da 2017ko edizio honetan, 1994an eta 2006an egin moduan. Saiotara hurbiltzen diren bertsozaleen artean egingo dira inkestak eta informazio hori bertsozalearen profila eta haren zaletasunak zein kezak ezagutzeko balioko du. Elkarteari ere baliagarria gertatuko zaio informazio hori bere jardunerako.

Bestalde, iaz, Mintzola Ahozko Lantegiak Donostia 2016rekin elkarlanean antolatutako *Europa bat-batean* kantu inprobisatuaren nazioarteko topaketari segida eman nahi dio

Bertsolari Txapelketa Nagusiak. Hala, azken edizioetan egin bezala, atzerriko inprobisatzaileak eta ikertzaileak hurbilduko dira.

Gainera, txapelketako webgunean atal berezitu bat dago eta bertan txapelketarekin eta bertsolaritzarekin lotutako hainbat baliabide jarri dugu eskuragai, material didaktiko gisa baliatzeko. Halaber, txapelketak irauten duen bitartean euskalduntzean ari diren erakundeei hainbat emanaldi antolatzeko eskaintza luzatuko diegu, Lankuren bitartez.

Aitzakiarik ez udazkenean txapelketa eta bertsolaritza hurbiletik ez jarraitzeko.



**NAHIA
SASCO ETXEBERRI
Zarautz, 2017-IX-01
Lizardi Sariketako
txapeldunaren agurra**

Doinua: Agur Jesusen ama I

Gero Hondarribira
doaz gure hitzak
berdintasuna neskei
banatuz saritzat.
Gogor saiatuz egi
baitira ametsak
atzean utziz lehengo
une gogor beltzak.
Esker mila deneri
erreza da behintzat
nere txapela zuei
esker ta zuentzat.



Txapelketako abonamendua bazkideen eskura egongo da soilik.//XDZ

F.C.BAIIENA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xenpelar Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / e-posta: komunikazio@bertsozale.eus

Hilabete amaieran ospatuko da Bertso Eskolen Eguna Seguran

Irailaren 30ean izango da eta egun osorako jaia antolatu du aurten ere Euskal Herriko Helduen Bertso Eskolen Batzordeak. Bazkarirako txartelak eskuragai daude www.bertsosarrerak.eus atarian, irailaren 24ra arte.


Portugaleteri lekukoa hartuz, aurten Seguran gauzatuko da Bertso Eskolen Eguna. Bertsolaritzaren topagune izango da Segura, gainera, irailaren 30ean: Bertso Eskolen Egunarekin batera, han jokatu delako Bertsolari Txapelketa Nagusiko final laurdenetako bat.

Urtero legez, egun osoko egitaraua prestatu du Euskal Herriko Helduen Bertso Eskolen Batzordeak. Elorripe herriko tabernan emango zaio hasiera festari, 12:30ean. 14:00etan bazkaria eskainiko da plazan, Iparra Hegoaren eskutik eta bazkalostean, Bertsotruk bertso eskolen arteko desafioren hirugarren edizioa aurkeztuko da partehartzaileekin. 2015ean antolatu zuen lehen aldiz ekimena Euskal Herriko Helduen Bertso Eskolen Batzordeak eta geroztik hainbat bertso eskolak hartu izan dute parte: guztira, urtero 30 bat saio egin izan dira bertso eskolen artean, beren arteko harremana sendotuz.

Jarraian, Bertsolari Txapelketa Nagusiko final laurdeneko saioari egingo zaio bide, eta hura amaitzean, Bertso Eskolen Egunak jarraipena izango du: 20:00etan, afari mokadua eskainiko du Elorripe herriko tabernak eta Julene Otaegi eta Jone Uria trikitilariak girotuko dute otordua. 23:00tan, eMePebo5t taldearen kontzertuak amaituko du eguna.

Bazkarirako txartelak, eskuragai

Irailaren 24ra arte lortu ahal izango dira Bertso Eskolen Egunaren baitan egingo den bazkarirako txartelak. 15 euroren truke erosi ahal izango dira www.bertsosarrerak.eus atarian bertan.



Egun osoko jaia izango da Seguran.//XDZ

Denboraldi berriari ekingo dio Hitzetik Hortzerak

Bertsolari Txapelketa Nagusiaren jarraipena egingo du udazkenean. Era berean, bertsolaritzaren ingurukoak egunero jarraitu ahal izango dira www.bertsoa.eus atari berrituan.

Irailaren 24an itzuliko da Hitzetik Hortzera igande bazkalosteetara. Orduetegi berari eutsiko dio -igandean, 15:00etatik aurrera, ETB1en-, eta udaberrira arte izango dugu lagun.

Eguneroko bertso apeta asetzeko, udan etenik izan ez duen www.bertsoa.eus atariak bere ohiko jardunarekin jarraituko du. Uda aurretik, webguneak erabateko berritua hartu du eta, besteak beste, bertsoaldien bilaketa erraztu.

Jarraitu Txapelketa Nagusia sarean zein telebistan

Udazkenean zein neguaren hasieran, Txapelketa Nagusian jarriko dute arreta Hitzetik Hortzerak zein Bertsoak. Era berean, zuzenekoak eta saio berri bat ere eskainiko dira ETBn.

Saio guztietako bertsoaldirik onenak eskainiko ditu igandeetan Hitzetik Hortzerak, final laurdenetatik hasita. Bertsoa atariak

ere jarraipen berezia egingo dio txapelketari, eta bertsoaldien hautaketaz gain, iritziak eta elkarrizketak bilduko ditu. Saioen zuzeneko emisioek osatuko dute eskaintza.

Saioa zuzenean jarraitzeko aukerarik ere izango da telebistan. Zazpi finalaurrekoak zuzenean eskainiko ditugu ETB4 katean, Aitzol Barandiaranek aurkeztuta eta Uxue Alberdi iritzi emaile lanean dela. Abenduaren 17an Barakaldon jokatu den finala ere pantailan jarraitu ahal izango da, kasu honetan ETB1en.

Gainera, udazkeneko astelehenetan, bertsolaritzaz gozatzeko tarteak izango dira ETB1n. Saio berria abiatuko da urriaren 30ean, Euskal Telebistako lehen katean, 22:30etik aurrera. Zortzi atal izango ditu, eta Txapelketa Nagusiko bertsoaldiak eskaintzeaz eta saioetako giroa etxera hurbiltzeaz gainera, gaur egungo bertsolaritzaren gakoak eskainiko dira.

Bertso Udalekuak: 200 gaztetik gora bertsolaritzaz eta aisialdiaz gozaten

Amaitu dira aurtengo Bertso Udalekuak. 200 gaztek baino gehiagok gozatu dute bertsolaritzaz eta aisialdiaz egonaldietan, baita beraiekin batera egon diren 50 hezitzaileek ere. Aurten 20. edizioa izan dute Bertso Udalekuek.

Uda joan da, baina udako momentuak gordeta izango dituzte gazteek, eta aldean eramango dituzte aurrerantzean ere.



Bi ikerketa proiektu sari ditugu esleitzeko Mintzolak eta Laboa Katedrak

2.000 euroko bi ikerketa sari eskainiko dira. Eskariak aurkezteko epea urriaren 15ean amaituko da.

Geroko tesiak bultzatzeko helburuarekin eta ikertzaile gazteei edota hasiberriei bultzada emateko asmoz, aurten ere bi ikerketa proiektu sari izango ditugu esleitzeko UPV/EHUko Mikel Laboa Katedraren eta Mintzola Ahozko Lantegiaren eskutik. Ikergai nagusia bertsolaritza duten proiektuak gauzatzeko 2.000 euroko bi diru-laguntza eskainiko dira.

Lanen ikergai nagusia bertsolaritza izango da eta edozein jakintza-alorretik aztertu ahal izango da berau. Bestalde,

master-amaierako lanen proiektuak lehenetsiko dira, baina beste ikerketa-lan monografiko batzuen proiektuak ere onartuko dira; nolahi ere, unibertsitateko irakasle doktore batek bermatu behar du proiektua.

Urriaren 15era bitarte egin ahal izango da eskaria, eta handik hilabetera argitaratuko da ebazpena. Eskariak egiteko prozedura eta informazio osoagoa topatuko duzue www.mintzola.eus eta www.ehu.eus/laboakatedra atarietan.



Bertsolaritzaren inguruko ikerketak, UPV/EHU Uda Ikastaroetan

2013an hasita Mintzola Ahozko Lantegiak UPV/EHUko Mikel Laboa Katedraren eta Euskara eta Ikerkuntza Errektoreordetzekin batera egindako biderei esker, areagotu egin dira bertsolaritzaren inguruan abiatu diren azterketa lanak. Beste erakundeek martxan jarritako deialdietan ere, hainbat dira bertsolaritzaren aldeko hautua egiten duten ikertzaileak.

Horietako ikerketa batzuk *Bertsolarien kantaera eta sormena* ikastaroan ezagutu genituen abuztuaren amaieran, UPV/EHU Uda Ikastaroen baitan. Ainhoa Aizpurua, Itziar Navarro, Maialen Lujanbio, Eñaut Agirre, Jon Martin eta Oihana Iguaran izan ziren hizlari eta partaidetza handia izan zuen eskolak.

laz Mintzolaaren egoitzan aurkeztu ziren ikergaietako batzuk.//XDZ



Puntua jarrita

JOSE LUIS URDANGARIN GOÑI

Bixentek Jokin Sorozabali bota zion puntua, baina bien baimenarekin, bigarren botean nik erantzungo diot. Gustura gainera.

Bixente, nik ez diat Jokinek bezela abiadura handiko trenik probatu baina aldiriko trenean ibilia nauk hire moduan, eta zenbaitetan hirekin bagoi berean topatu ere bai. Gu ere bertso eskolatik sartu ginen bertsoen zurrunbiloan, lehenengo txapelketa bat, gero bestea, bertso paper batzuk hurrena, saioaren bat, errondak, ... Batez ere hastapenetan, gure ibilbidea lehiak markatu zian, ados, baina bidean aurrera egin ahala, lehia indarra galtzen joan huan eta bertso laritzarekiko motibazioari beste zutabe batzuk eutsi ziotek: mugimendu honi esker ezagututako adiskideek eta bertso gintza formatu apalagoek, batik bat.

Hasi ginenetik bideratu gintuzten bertso laritzaren eszenifikazio formatu nagusienera, jaialdira: oholza bat, mikrofonoa, gu goian entzuleak behean, gai jartzaile bat, txapelketetan epaileak, ... Formatu hori, bertso laritza indartsu eta danon ahotan nahi badegu ezinbestekoa dek, sustatu beharrekoa eta kontsumituko dedana. Nik ordea, bertso laritza moduan, hor ez diat nire burua ikusten.

Aspaldian sortzen joan dituk beste espazio batzuk, mikroagoak, goxoagoak, pertsonalagoak, entzulea saioaren parte bihurtzen dutenak, eskaparate txikikoak, bertsoa kale ixkinera itzultzen eta are gehiago sozializatzen lagundu dezaketanak.

Gaur egun lehenagoko lanak badizkiat, baina, bertso gintzara berriro hurbiltzekotan, bigarren formatu horrek tentatuko ninduke.

Bertso laritzan bide desberdinak jorratu dituenetako bat Ibai Esoain dek, eta jakingo nitek gustura Ibai zerk tentatzen duen bertso laritzan gaur egun.

Koplak

Ahalduntze Bertso Eskolaren 3. edizioa, martxan

Udazkenean hasiko da Ahalduntze Bertso Eskola. Bat-batean egin nahi duten emakume guztiei dago zuzenduta; urrian hasi eta ekainera bitartean, hilean behin elkartuko dira. Izen ematea hilaren 22ra arte egongo da zabalik, umorez@bertsozalea.eus helbidera idatzita. Plaza mugatuak daude.

Poto-Finixa



Uda doinuetan

Xenpelar Dokumentazio Zentroa

Bertosarrerak ataria berri du

Bertso laritza Txapelketa Nagusiko sarrerak salgai jartzearekin batera jarri du gaur martxan www.bertosarrerak.eus webgune berriua. Aktingek garatu du ataria eta diseinu zein erabilera aldetik egin dira hobekuntzak. Atariari loturiko proposamenik izanez gero, helarazi zuen mezuak bertosarrerak@bertsozalea.eus helbidera.



**BERRIAK
JAIO
GINEN**

JON MAIA SORIA

**LIBURU
BERRIA!**

Liburua erosteko eta informazio gehiago jasotzeko:



Lanku
www.lanku.eus
943 26 07 55

PUBLIZITATEA